

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzua: 2020ko laugarren hiruhilekoari dagokion zerga errolda eta diru bilketako epea

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2020ko laugarren hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeke eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onetsizat emango da epe horren barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

2021eko urtarrilaren 15a eta martxoaren 15a bitarteko egunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira dagozkion ordainagiriak.

Ordaintzeko era:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak kudeatuko du, zuzenean, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetako zordunketa, 2021eko martxoaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainketa gutunarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak:

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako erreklargua gehituko zaie.

Legutio, 2021eko urtarrilaren 15a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO